



Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko txosten-proposamen zirriborroari LABen ekarpenak

Hainbatetan azaldu bezala, LABek beharrezkotzat jotzen du Hezkuntza Akordio zabal bat egitea. Azken hamarkadetan euskal hezkuntzan sortu diren arazo eta arrakalak gainditze bidean jartzeko aukera dagoela uste dugu. Eta ikuspegi horretatik ari gara egiten gure ekarpena.

LABen iritziz Ponentzia Batzordeak aurkezturiko zirriborroan badira jorratu beharreko gai garrantzitsuak, baina idazkerak pasarte askotan zalantzak sortzen ditu, eta beste batzuetan orokorregia da. Hain da horrela, kontrakoak izan daitezkeen bi norabidetan garatu litekeela: ituntze-sistemaren kontsolidaziorako proposamena izan liteke edo berau mugatu eta hezkuntza-sistema trantsizio bidean jartzekoa.

Horretaz gain, hezkuntza-sistemaren gabezien muinei heltzeko sakontasun handiagoa behar duela uste dugu eta horregatik hurrengo ekarpenak aurkezten ditugu:

Abiapuntua

- Hezkuntza akordioari hezkuntza-sistemaren egungo diagnostikoa jasotzen duen atal bat gehitu beharko litzaikeela uste dugu. Ikuspegi kritikoaren jasotako diagnostikoaz ari gara, egungo testuinguruaren zertzelada batzuk jasoko dituen: jaiotze-tasa eta matrikulazio kopuruaren jaitzierari erreferentzia, sistema-dualaren datu objektiboak, ISEK indizearen araberrako analisia zein hizkuntzen irakaskuntzari dagozkionak.
- Diagnostikoak autokonplazentziazkoa iruditzen zaigun “erreferentziazko adierazleek hezkuntza sistema ona dugula erakusten dutela” baieztapena zuzendu beharko luke. Hezkuntza-sistema hobetze bidean jartzeko nahi eta determinazioaz hitz egitea proposatzen dugu guk, hezkuntza-sistema ebaluatzen duten beste adierazle batzuk aintzat hartuta: Ebaluazio Diagnostikoak euskalduntzeaz dioskuna, ISEI-IVEIk egindako txostenetan agertzen direnak, *Save The Children* txostena, etab.
- Eskola publikoa erdigunean jarri eta berau ardatz duen hezkuntza-sistema eraikitzeaz aritu beharko litzateke testua, titularitate publikoa eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea uztartuko duen sare bakarreranzko trantsizio bide gisa. Egun indarrean dagoen eredu dualetik sare bakarrerako bidea egitea planteatzen dugu, konfluentzietatik -eta ez sareen elkarbizitza eta betiketzetik-sortutako bidea eginez. Deszentralizazioan eta parte hartzean oinarrituriko publikotasun berri batean oinarrituko litzatekeena.



- Eredu dualaren ondorioz administrazioak Eskola publikoarekiko duen zorra aitortu eta beratu sistemaren ardatz izan dadin neurri integralak jaso beharko lituzke testuak.

Hezkuntza-sistemaren antolaketaz

- 0-18 urte bitarteko hezkuntza sistema ez-unibertsitarioaren eredu eta antolaketari erantzun beharko lioke hitzarmenak, zirriborroan aipatu ere egiten ez den Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3) hezkuntza sistemaren barruan eta eskola mapetan integratuz. Administrazioak diru-laguntzen txeki politikarekin amaitu beharko luke, hori egin ezean hurrekin eskolek duten matrikulazio lehia betiketuko baita. Bide horretan, ezinbestekoa da Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna bermatzea.
- Hezkuntza-sistema dualaren oinarrian dagoen kontzertazio unibertsalarekin amaitzeko proposamena jaso beharko luke akordioak, finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxeei baldintzak ezarriz. Batetik, finantzazio publikoa jasotzen duen ikastetxeak ezin du kuota kobratu, doakotasuna bermatu beharko luke eta bestelako betebeharrak ere bete behar ditu. Segregazio oro gainditu eta inklusiboak izatea, euskarazko murgiltze eredu eta euskal curriculum bermatzea, laikoa izatea, hezkidetzak egiturazko izatea, edota parte hartzea bultzatzea.

Eta bestetik, Administrazio publikoaren finantzazioa jasotzen duten ikastetxeetan horrek isla izan behar du ikastetxe hauen titularitatean. Sare bakarra ortzimugan, nortasun juridiko propioa duten eskolen kasuan, titularitate partekaturantz urratsak eman beharko dira.

Honela, trantsizio gisa, baldintza eta betebeharrak berberak izango lituzketen ikastetxe osatutako sistema berria sortuko litzateke. Batzuk titularitate publikoa izango lukete eta besteak titularitate mistoa, baina denak egongo lirateke udal eta eskualde mailako planifikazio publiko bateratuan txertatuta. Matrikulazioekin dagoen lehiarekin nahiz segregazio joera ororekin amaitzeko, udal mailako planifikazio eta eskolaratze prozedura bateratua martxan jarri. Doakotasun erreala bermatuz, kuota desagerraraziz.

- LABen proposamenean jaso genuen ikasleen oinarriko hezkuntza beharrak %100 finantzatzeko direla, eta ez besterik. Haur eta ikasleen oinarriko hezkuntza beharrak, eremu sozialari, ongizate fisiko eta psikikoari eta akademikoari erantzuten dietenak dira eta hauei lotuta, garapeneko autonomia, jolasa, emozioak, segurtasun afektiboa, natura, esperimentazioa, hizkuntza, jakintza, elikadura, gorputza, harremanak eta pentsamendu kritikoa. Hortaz, bertatik kanpo leudeke orain hilabete ezagutu ditugun praktikak, igerilekuak edo bestelako azpiegiturak finantzatzea alegia.



- Akordio proposamenak ez ditu kontrol publikorako tresnak zehazten. Izan ere, ez da nahikoa doakotasun erreala edota euskalduntzea bezalako gurariak aurkeztea gero ez badira hauen ebaluazioak garatuko. Sistemaren eta finantziarioaren kontrola gauzatzeko instituzioen auditoriak eta ikuskaritza propioak behar dira eta testuan agertu behar dira. Abiapuntutzat hartu behar dugu ituntze-sistemaren legeak esaten duen hori -kuotarik ezin dela kobratu- egun ez dela betetzen, hortaz, zein zuzentze neurri eta kontrol mekanismoa ezarriko diren zehaztea ezinbestekotzat dugu.
- LABek proposaturiko herri mailako eskolaratze eta planifikazio batzorde bateratuak aipatzen ditu testuak. Hala ere, gaiaren garrantziak sakontasun gehiago eskatzen du. Matrikulazio guztiaren planifikazioa egiteko Hezkuntza Sailaren eta udalen arteko ko-gobernantza formulak garatu ahal izateko sortu beharreko batzordeek baliabideak, eskuduntzak eta izaera loteslea behar dute ezinbestean. Soilik horrela lortu daiteke tokian tokiko beharrei erantzunez segregazioa gainditzeko proposamen integralak garatzea.

Hezkuntza-sistemaren hizkuntza eta curriculumaz

- Zirriborroan aipatzen da euskara ardatz izango duen hizkuntza eredu bakarra ezartzeko asmoa. LABen ustez, zehaztaperen gehiago behar da: euskararen murgiltze eta mantentze eredu definitu eta ezarri behar da hezkuntza komunitate osoarentzat 0 urtetatik Lanbide Heziketa bitarte.
- Euskal Curriculumaren inguruko gogoeta sakonagoa egin beharko litzateke. Euskal Herriko ondare linguistikoa, kulturala eta soziala berritzearekin batera, curriculum feminista, berdinzalea eta antiarrazista baterako diseinua jaso beharko litzateke.
- Programa-kontratuekin kontu handia izan behar delakoan gaude. Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin hezkuntza egitasmoa burutzeko beharrezko dituen baliabideak adostu ditzakeen arren, hezkuntza-sistemak egiturazko curriculumak izan behar du, hezkidetzak, aniztasunaren trataera eta inklusioa, laikotasuna eta euskara eta euskal kultura ikastetxe guztien hezkuntza egitasmoaren oinarri izan behar dira. Klase-sozialen, sexu-generoaren edo/eta arrazializazioan oinarrituriko zapalkuntzei hezkuntzak era integral eta kritikoa erantzun behar die, ezin da hautazkoa izan. Aipatutakoaz gain, mekanismoak ezarri beharko dira programa-kontratuak ikastetxeen arteko lehia sustatu ez dezaten eta segregazio-iturri bilakatu ez daitezten.
- Digitalizazioaz bi ekarpen gehitu nahiko genituzke. Batetik, hezkuntza komunitateko pertsonen eskubide digitalak bermatuko dituen *digitalizazio demokratikoa* (Big datuen erabilerari mugak jarritz eta datuen erabilera debekatuz) eta hori ezartzeko neurriak. Eta bestetik, hezkuntza-sistemak software librekoa izatea oinarri, botere korporatiboari mugak jarritz.



Hezkuntzako langileez eta lan-baldintzez

- Finantziario publikoa jasotzen duen edozein ikastetxek *klausula laboral* batzuk bete beharko ditu, administrazio publikoaren finantziarioa jasotzeagatik bete beharrekoak:
 - Langileen sarbidean aukera berdintasuna bermatzea, hezkuntza-sistemako langile guztientzako sarbide bakarraren norabidean. Sarbide bakar horretan ziurtatu beharra dago gaitasun eta merituetan oinarrituriko hautagai guztien arteko aukera berdintasuna, prozesuaren gardentasuna nahiz kontratazioaren gaineko kontrol publikoa (hezkuntza komunitatearena) eta gainbegiratze sindikala. Sarbidea bakarra izatean, kontratazioa administrazioak egingo luke, era deszentralizatuan.
 - Lan-baldintzak homologatzea eta ekiparazioa.
 - Pribatizaturiko eta azpikontrataturiko egiturazko langilerik ez izatea.
- Era berean, irakasle-ikasle zein hezitzaile-ikasle ratioen jaitziera jaso beharko luke testuak, ikasle bakoitzari eskainitako arreta eta hezkuntza kalitatea hobetzeko eta jaiotze kopuruaren beherakadaren aurrean enpleguari eusteko neurri gisa.
- Irakasleei buruz bakarrik ari da zirriborroa, eta gainontzeko hezkuntza langileak -haur-hezitzaile, heziketa bereziko profesional, jantokiko begirale, sukaldari, garbitzaile, administrari eta atezainak- alboratzen ditu. Irakasleen prestakuntzaz aritu behar dela aitortuta ere, ikastetxeko hezkuntza egitasmoaren eta horren helburuen ardura, langile guztiona da -egun azpikontrataturik daudenena ere-. Langile guztion aitortza ezinbestekoa da, hezkuntza bere adierarik zabalenean ulertu eta eraldatzeko asmoa badago, behintzat.
- Zuzendaritza taldearen egitekoari eta funtzioei dagokionean, egiturazko curriculum bideratzeko lidergo pedagogikoa aitortzea egoki baderitzogu ere, zuzendaritza eredu gerentzial bilakatu ez dadin irizpide argiak ezarri beharko dira.
- Hezkuntza lana eraginkortasunez garatu ahal izateko, ezinbesteko tresnak bermatu behar dituzte instituzioek, besteak beste, langileon egonkortasuna eta kontsolidazioa, azpikontratazioarekin bukatzea, ratioen jaitziera, etengabeko prestakuntza (lehentasunez: euskalduntze eraginkorrerako estrategiak, ikasle etorkinak eskolan murgiltzeko programak, inklusioa eta aniztasunaren trataera, hezkidetzak, berrikuntza pedagogiak) eta kontziliaziorako neurriak.

Euskal Herrian, 2022ko otsailaren 18an